

KONTROL MOZIOA

METROKO LANAK DIRELA ETA ZARAUTZ ETA ZUBIETA KALEETAKO BIZILAGUN BATZUEK ABEEEN ESKUTIK JASOTAKO GUTUNEI BURUZKOA

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2021eko irailaren 20an Gune Publikoen Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Irailaren 11n prentsan publiko egin zen, metroko lanak sortutako kalteak direla eta, Zarautz hiribideko bizilagunei Benta Berriko ez-aldi baterako enpresa-elkartek emandako gutuna. Bizilagunek eta kaltetuek jakinarazi digutenez, Zarautz hiribideko bizilagunek bakarrik ez, Zubietako bizilagunek ere antzeko proposamen-gutunak jaso dituzte Easo-Mirakontxako ez-aldi baterako enpresa-elkartearen eskutik .

Gutunak ematerakoan oso modu bortitzean eman dituztela salatu dute bizilagunek. Gutun hauen bidez, bizilagunak kalte-ordainak onartzera gonbidatzen dituzte, metroaren obrek euren etxebizitzetan eragindako kalteengatik. Eta era berean, etorkizunean, kontu honengatik obraren arduradunei ezer gehiago ez erreklamatzeko konpromisoa hartzea eskatzen diete: ez aldi baterako enpresa-elkarteari ez eta Eusko Jaurlaritzari (ETSri) ere. Horrek ezinegona eta urduritasuna sortu du hainbat bizilagunen artean, babesgabe sentitu baitira gutun hauen aurrean.

Gutunek sortzen duten urduritasunaz eta zalantzaz gain, Zarauzko bizilagun batzuek harriduraz jaso dute oraingo kalte-ordaina. Metroaren lanak Benta Berrin hasi zirenetik bizilagunek behin baino gehiagotan aldarrikatu zuten metroaren obren ondorioz bibrazioak, pitzadurak eta obren bestelako ondorioak jasaten ari zirela haien etxebizitzetan. Bizilagunek hainbat salaketa jarri zituzten, eta behin baino gehiagotan entzun behar izan zuten metroen

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

lanek ez zutela zerikusirik eta etxearen finkatze naturalagatik eta urte asko zituztelako gertatu zirela horietako pitzadura asko.

Gogorarazi behar dugu, bestalde, 2019ko azaroan, lur-jausi bat gertatu zela Zarauzko Hiribidearen atzeko magalean hainbat etxebizitzatan kalteak sortuz. Bizilagunek metroaren lanen ondoriozkoak zirela esan arren, Eneko Goiak eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak ukatu zuten hori hasieratik. Gerora, Udalaren txosten tekniko batek ondorioztatu zuen luizia euriteen ondorio izan zela.

Orain, Zarautz hiribideko bizilagunei kalte-ordaina eskaini diete bere garaian jarritako erreklamazioengatik. Beraz, ez dugu ulertzen zertara datorren bi urte geroago horrelako gutunak aurkeztea, metroko obrek ez bazuten zerikusirik etxebizitza horietan agertutako kalteekin. Jarrera honek bizilagunak nahasi baino ez ditu egiten eta segurtasun eta sinesgarritasun falta ematen.

Irailaren 20an egindako batzordeetan gutun hauen aurrean kaltetutako bizilagunekin biltzeko asmoa ote zuen galdetu genion alkate jaunari, bai eta gertuko erakunde instituzional gisa bizilagun hauei haien ezjakintasunaren eta urduritasunaren aurrean nolabaiteko babesa emateko asmoa ote zuen ere. Baina alkateak beste behin ere, ez zuen erantzun zehatzik eman. Ez genion ikusi bizilagunen eskubideak defendatzeko asmorik eta, ohi bezala, ez-aldi baterako enpresa-elkarteen eta ETSren aldekoa izan zen haren defentsa.

Donostiarrak, metroaren lanak direla eta, azken urteetan jasaten ari diren kalteen aurrean, Udal Gobernuak eta alkateak haien interesen eta eskubideen alde egiteko ordua dela uste dugu.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Benta Berriko eta Easo-Mirakontxako ez-aldi baterako enpresa-elkarteen eskutik gutuna jaso dituzten Zarautz hiribideko eta Zubietako kaleko bizilagunekin bildu dadila eta behar dutenentzat Udalaren baliabide guztiak haien eskura jar ditzala.
2. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, bitartekaritza lanak egin ditzala Zarautz hiribideko eta Zubietako kaleko bizilagunen eta ez-aldi baterako enpresa-elkarteen eta ETSren artean, eta lan bera egin dezala metroaren lanen ondorioz kalteak jasan dituzten beste donostiarrekin ere.

Donostian, 2021ko irailaren 23an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia